

TRUEBA-RI



«Silencio, y al mundo vano
Olvida, alma mia inquieta,
Que ante Dios calla el poeta,
Y se arrodilla el cristiano.

TRUEBA.

Onela zion Trueba maiteak bizi zanean:
Au bera diot nik ere oraiñ bere aurrean:

 Iñillik daude
 Osto tartean choriyak;
 Iñillik baita
 Euskaldun biursariyak:
 Iñillik denak:
 Bañan iñiltasunean,
 Baserritikan
 Kea dijoan antzean,
 Biyotzetatik
 Zeruetara dijoa,
 Samur, eztiya,
 Ederra orazioa,
Eskaturikan, Trueba, zuretzat
 Pake t' argi betikoa.

KARMELO ECHEGARAY-KOAK.

